



Fitxa teknikoa:

Auskalo! Xabier Olaso eta Agurtzane Villate. Pamiela, 2001.

Auskalo! Xabier Olaso eta Agurtzane Villate. Klis klas Klasikoak, 2013.

Liburuaren aurkezpena:

“Badakit zuk badakizula nik badakidala hau, guztia hau, jolas bat baino ez dela, baina jolas hau gustukoa dut:

Tipi-taki

Pipi-taki

Ni nor naizzen inork ba al daki?”

Liburu honetan Xabier Olasok igarkizun eta ahokorapilo bilduma eder bat ekarri zigun 2001ean. Euskal Herriko eskola asko-askotan haurren ahotan ibili dira, jostailu gisa, hitzetik hortzera; beste hainbeste haurren buruan jira eta bira aritu dira konparazio egoki baten bila, edota metaforaren zentzu ezkutua zein ote den igarri nahian.

Izan ere, igarkizunak desafio bat suposatzen du entzulearentzat, haren esanahi ezkutua zein den igarri arte. Auskalo! liburuan, hitz joko hauetan betidanik erabili ohi diren baliabideak aurkitu ditugu gaurkotuak: jostaketa eta umorea plazer iturri aberatsa bihurturik.

Adibidez, igarkizun batean formaren atzean, objektu baten deskribapen eraldatu bat ezkututzen da: objektua gogora ekartzen duten hainbat erreferentzia ekartzen direlarik. “Bi nini txiki, bi leiho biki...” Konparazio bat egin ondoren haren zati bat desagertu arazi eta metafora bat sortzen da bertan.

Hizkuntzaren eraikuntzan hurrek beren baliabideak aurkitzen dituzte garapenarekin aurrera egin ahal izateko. Igarkizunen bitartez, hizkuntzaren esanahiarekin jolasean jartzen dugu haurra, hitzen esanahia igarri nahian, desafio batean. Hizkuntza jostailu aberats bat bilakatzen da, hitzen esanahi anitza igartzeko jostaketaren eremuan. Aldi berean, hizkuntza bilakatzen da hizkuntzaren jostailua; beste hitz batzutan, hizkuntzaz baliatzen gara hizkuntzari buruzko hausnarketak egiteko.

Bada gebiago?

“Badoa, badoa haurraren ondora, betazalak behera, izarak gora”.

Bilduma honetan igarkizunek erabiltzen dituzten baliabide unibertsalak agertzen dira. Izan ere, igarkizunen tradizioan forma poetikoa azaltzen da gehienetan, errazago gogoratzeko seguruenik. Baina forma horrek bere oihartzuna aurkitu behar du hizkuntza bakoitzaren soinuan eta doinuan; igarkizun eta ahokorapilo bilduma honetan Xabier Olosok oihartzun hori gaurkotua ekartzen digu: Euskal Haur Poesiaren tradiziotik abiatu bada ere, egungo hurrei euskararekin jolasean aritzeko baliabide ugariak eskaintzen dizkie autoreak, hizkuntzaren formak eta esanahiak jostailu gisa proposatzen dituenen.

Liburuari hasiera eman aurreko honetan, aurreko edizioak izan duen ibilbide oparoa desiratu baino ez; izan ere, eskola askotan, etxe askotan, Euskal Herriko txoko askotan erabili izan da liburu hau jolasean, aurrerantzean ere hala erabiliko ahal da...

Itziar Zubizarreta